

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Karmen Garmendia Lasa

*Ormaiztegi,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Ormaiztegin jaioa, aita lazkaotarra zuen eta ama, berriz, Ormaiztegi bertakoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Mari Karmen. Guraso biek etxeko enpresan egiten zuten lana. Familia abertzalekoa, euskarazko liburu zein diskoak izaten zituzten etxean. Eskola publikoan ibili zen, gerraosteko urte ilunetan (gaztelaniaz eta hezkuntza oso frankista). 13 urterekin Frantziara bidali zuten, frantsesa ikastera, eta aldaketa handia izan zen berarentzat: gizarte moderno bat ezagutzeko aukera izan zuen. Donostian bizi da 1964. urteaz geroztik. Batxilergoa egin ostean, Magisteritza ikasi zuen, Andereñoen Erresidentzian ostatu hartuta (irakasleak euskalduntzeko hezkuntza osagarria jasotzen zuten bertan), eta euskarazko eskolak ematen hasi zen segituan. Euskarazko lehenengo udalekuak ere antolatu zituzten. Horretaz gainera, Zeruko Argia astekarian iritzi-zutabeak idatzi zituen lehen emakumea izan zen. Rikardo Arregik bultzatuta, "Gazte naiz" sailean idazten hasi zen, eta euskalduntze-alfabetatze eskoletan ere buru-belarri aritu zen. Santo Tomas lizeoan irakasle jardun zuen eta baita Elizbarrutiko Irakasle Eskolan ere. Politikaria ere bada, EAJtik: Eusko Jaurlaritzako bozeramaile izan zen (Ardanza lehendakari zela) eta Hizkuntza Politikara sailburuorde, eta baita Kultura Sailaren buru ere (1995etik 2001. urtera). Bide urratzailea izan da hainbat alorretan; baita bere ahizpa [Elixabete Garmendia](#) ere. Bi seme-alaba ditu. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

ORM-015

- **Proiektua:** San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Irati - Gorostizaga, Olatz
- **Data:** 2021-03-06
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

ORM-016

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-10-20
- **Iraupena:** 148 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aitona berritzailea: Onena lantegia sortu zuen

- **Erref:** ORM-016/003
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak goierritarrak, aita Lazkaokoa eta ama Ormaiztegikoa. Aitaren familia baserri girokoa. Amaren aita, Joxe Mari Lasa, oso ausarta eta berritzailea zen. ONENA lantegia sortu zuen. Hainbat tresna sortzen zituzten bertan, besteak beste, alternadoreak. Horiei esker leku askotan argindarra jarri zuen. Hainbat bainuetxerekin ere bazuen harremana, bertarako tresnak egiten zituelako. Mari Karmenen ama 12 urterekin hasi zen lanean, aita erositako idazmakinarekin harentzako fakturak egiten eta 92 urtera arte jardun zuen lanean. Goierriko zenbait lantegik aitonak sortutako lantegian dute jatorria, esaterako, Beasaingo Indar-ek.

2. Ormaiztegiko eskolak eta irakasleak

- **Erref:** ORM-016/004
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Herriko eskolara joan ziren umetan. Mutilen eskolan don Juan Muguruza zen irakaslea. Nesken eskolak bi zeuden: batean "señorita" Pepita ordiziarra zen irakasle; bestean, On Gaspar Intsausti erretoreak eta Udalak sortutako "Escuela Nacional Parroquial"ean Ramona Lasa herritarra. Ahizpa gehienak lau urtetik hamalaura bitartean ibili ziren orduan "Escuela Unitaria" esaten zitzaionean.

3. 13 urterekin beste gizarte bat ezagutu zuen Frantzian

- **Erref:** ORM-016/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

13 urterekin Frantziako Tolosa ondoko herri batera bidali zuten gurasoek, frantsesa ikastera. Izugarritzko aldaketa izan zen berarentzat beste gizarte bat ezagutu zuelako han (Aljeriako gerra, gizartearen sekularizazioa...) eta urtebetean izugarritzko heldutasuna lortu zuela dio. Batez ere emakumeentzat dena bekatu zen garai haietan, Frantzian gauzak ezberdinak zirela ikusi zuen.

4. Batxilergoa nola egin zuen

- **Erref:** ORM-016/006
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Frantziatik itzuli zenean, aitari Batxilergoa egin nahi zuela esan zion. Ramona Lasa irakaslearekin prestatu eta urtean behin Donostiara joaten ziren Peñaforida institutura, azterketa egitera. Irakasgaien artean matematika, kimika, latina eta bestelakoez gain, "Formación del espíritu nacional" ere bazegoen. Neskek, gainera, "Labores" (jostea) ere egin behar izaten zuten eta egindako lanei nota jartzen zieten.

5. Gizarte hezitzaile izateko asmoa

- **Erref:** ORM-016/007
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Frantzian mojek zuzendutako eskola batean egon zen. Bertan egoera txarrean zeuden familietako barneko ikasleak ere bazeuden. Orduan ezagutu zuen gizarte laguntzaileen lana eta berak ere hori ikasi nahi izan zuen. Ormaiztegiara itzuli eta Batxilergoa egin ostean, jakin zuen Donostian orduantxe jarri zituztela Gizarte hezitzaile izateko ikasketak. Bertara joan nahiko lukeela esanez idatzi zien bertako arduradunei (Mari Karmen Altzueta eta Mari Irazusta), baina 18 urte beteta izan behar zituela erantzun zioten. Orduan Magisteritza ikastea erabaki zuen, gero gizarte hezitzaile egingo zela pentsatuta.

6. Arami elkarte eta andereñoen erresidentziaren sortzaileak

- **Erref:** ORM-016/008
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gurasoen familiak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren, batez ere amaren aldekoa. Gerraosteko isiltasunean beraien etxean jakiten zituzten euskararekin edo abertzaletasunarekin lotutako kontuak. Maritxu Barriolarekin, Delia Laurobarekin, Esnaolatarrekin... harremana zuten. Magisteritza ikastekotan zegoela, andereñoen erresidentziaren berri eman zien Lazkaon apaiz zegoen Jaxinto Fernandez Setienek. 1964an sortu zen erresidentzia eta haren kudeaketa Agirretxe frantziskotarrek sortutako Arami emakume elkartearen esku geratu zen. Pakita Arregi zen burua. Bultzatzaile eta laguntzaileak nortzuk izan ziren: Karlos Santamaria, Koldo Mitxelena, Joxe Murua, Inazio Garmendia (bere aita), Juanito Goia eta Iñaki Gurutziaga, Groseko Zilbeti botikaria... Emakumeen artean, Aramiz gain, Maritxu Barriola.

7. Maritxu Barriolaren garrantzia

- **Erref:** ORM-016/009
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Maritxu Barriola nor zen azaltzen du. Abelino Barriola antzerkigilearen alaba eta Iñaki Barriola medikuaren arreba. EAJko kidea, oso konprometitua. Bizi osoan lanean. Anaiak eta biek zapata-denda zuten Garibai kalean. Bertan gordeta edukitzen zituen Iparraldean (batez ere Azkainen) argitaratzen ziren

lanak (Orixerenak, adibidez). Gero merke saltzen ziren, jendeak eros zitzen. Mari Karmenen ama zen Goierriko banatzailea. Maritxu Barriolari esker Iparraldetik ekarritako hainbat lan aipatzen ditu: Orixeren meza-liburua, Anizeto Zugastirena, `Xabierto´ren berrargitalpena...

8. Magisteritza eta andereñoen erresidentzia

- **Erref:** ORM-016/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Andereñoen erresidentzia Manterola kaleko etxebizitza batean egon zen hasieran eta gero Zabaleta kalera pasa ziren, Zilbeti botikariak utzitako pisura. 1964an sortu zen eta ez zuen luze iraun, baina kualitatiboki oso garrantzitsua izan zen. Ategorrietara joaten ziren Magisteritza ikastera. Ez zuten jakiten ikaskideak euskaldunak ziren ala ez. Eskolak bukatu eta gero Milagros Bidegainek euskara eskolak ematen zituen, Aldundiak bideratuta. Berak euskara landuta zuen jada eta ez zen eskola horietara joaten.

9. Formazio osagarria jasotzen zuten andereñoen erresidentzian

- **Erref:** ORM-016/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Magisteritza ikasten ari zirenek formazio osagarria jasotzen zuten andereñoen erresidentzian. Esaterako, euskara gehiago landu zuten; irakaslea Mañoli Aleman leitzarra. Euskara lantzeko ezer gutxi zegoen. Beraien etxean Apalategi kaputxinoaren metodoa zegoen, aitonak gerra aurretik erositako, eta hura eraman zuen. Juan Mari Lekuona, Ibon Sarasola eta beste hainbat irakasle ere izan zituzten.

10. Udalekuen hasiera: Barriako udalekua

- **Erref:** ORM-016/012
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:31:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

Andereñoen erresidentzian egin zuten lehenengo ekintza Barriako Udalekuak sortzea izan zen, 1965eko uztailen. Lazkaoko Jose Sarasolaren autobusean joan ziren. Udaleku klandestinoak ziren. Nekane Auzmendi idiazabaldarrak han senide bat zuelako aukeratu zuten Barria. Komun bakarra zegoen eta dutxarik ez, umeak nola garbitzen zituzten. Beraiez gain, jende gehiago egon zen begirale lanetan: Arantxa Idiazabal, Antton Mendizabal... Eraikinaren kudeaketa edo hobekuntzetan Inazio Garmendia (bere aita), Juanito Goia, Iñaki Gurutzia eta Andoni Egia ibili ziren. Aldi bakoitzean 30 ume eta 15 eguneko txandak. Ekintzak eta ibilaldiak prestatu beharra.

11. Maritxu Barriolak Barriako begiraleentzat antolatutako txangoa

- **Erref:** ORM-016/013
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:31:21. **Bukatu:** 00:32:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Barriako udalekuak sortzeagatik, esker onez, Nafarroan barrena ibilaldi bat antolatu zien hango begiraleei Maritxu Barriolak. Erronkarira joan ziren; bertan Gaiarreren hilobia ikusi zuten, Luis Cambra euskaltzalea agurtu zuten...

12. Zeruko Argiako "Emakumeen jasokundea" atala eta lehenengo artikulua

- **Erref:** ORM-016/014
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:32:34. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Andereñoen erresidentzian jendea gehituz joan zen. Emakumeen berdintasunak kezkatuta, hainbat konturen inguruan euskaraz idaztea erabaki zuen. Gaztelaniaz "promoción de la mujer" esaten zitzaiona "Emakumearen jasokundea" itzuli zuen, Plazido Mujikaren hiztegian begiratuta. Ez zen ausartzen bere izenarekin sinatzen eta Miren Orreaga jartzea pentsatu zuen, baina Agustin Ezeiza Zeruko Argiako orduko zuzendariak oker zegoela pentsatuta Olarreaga jarri zuen. Hala jarraitu zuen, Rikardo Arregik eskatuta bere izenez idazten hasi zen arte. Rikardoren arrebak Frantziatik ekarritako neskontzako aldizkari bat erabiltzen zuen informazio iturri gisa.

13. Zeruko Argiako "Gazte naiz" atala, alfabetatzearen hasiera...

- **Erref:** ORM-016/015
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Zeruko Argiako "Gazte naiz" atalaren inguruan ibili zirenak: Rikardo Arregi, Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Mikel Laso, Jose Manuel Toledo, Xabier Lete... Antzerki kontuan Maria Dolores Agirrerren "Academia vasca de declamación" eta Iñaki Beobidek zuzendutako Jarrai; antzezleen artean, besteak beste, Arantxa Gurmendi. Dena egin zezaketela iruditzen zitzaizkien, ausartak ziren. Rikardo Arregik euskarazko alfabetatzea jarri zuen martxan. Irakasleak prestatzeko hasieran, Maria Dolores Agirrerren lokala erabili zuten. Gero herriz herri. Hitzaldiak ere eman zituzten. Bera zen emakumezko bakarra. Mikel Forkada ibiltzen zen txofer moduan.

14. Rikardo Arregi

- **Erref:** ORM-016/016
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Rikardo Arregiren inguruko kontuak. Aita, Pedro, euskaltzalea, EAJko kidea. Rikardok ekonomia ikasketak bere kasa egiten zituen, euskara bultzatzeko ekimenetan zebilen bitartean. Euskaltzain urgazle egin zuten. Alfabetatzea legezatzeko Euskaltzaindiaren babesa lortu zuen. Garrantzitsua izan zen Juan San Martin, Jose Luis Lizundia eta beste hainbaten babesa. Rikardok askotan esaten zuen esaldia: "euskararen etorkizuna korbatadunen esku dago". Garai hartan baserriak salbatuko zuela euskara uste zen, baina Rikardok hiritartu egin behar zela ikusten zuen. "Bisionarioa" zen.

15. Lazkaoko benekditarren euskararekiko konpromisoa

- **Erref:** ORM-016/017
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Espainian salbuespen-egoera ezarri zutenean, lagun asko kanpora bidali zituzten zigortuta, Juan Antonio Letamendia, adibidez. Lazkaoko benediktarren euskararekiko konpromisoa garrantzitsua izan zen. Elbira Zipitriaren jakintza jaso eta zabaldu zuten batetik eta bestetik ateak zabaldu, hitzaldi edo bileretarako. Lazkaoko barnetegiaren hazia izan zen. HABEren sorrera.

16. Pakita Arregi

- **Erref:** ORM-016/018
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:48:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Pakita Arregi, jaiotzez aresoarra. Oso gazterik joan zen Donostiara, guraso eta anai-arrebekin. Donostian ikasi zuten. Gizarte-laguntzaile ikasketak bukatzeaz bat, aita Agirretzek andereñoen erresidentziako zuzendari jarri zuen. Gero ikasten jarraitu zuen eta EHUko katedraduna izatera iritsi zen, hezkuntza alorrean. Bere lanari esker eta beste hainbaten babesarekin andereñoen erresidentzia aurrera atera zuen. Neska asko prestatu ziren erakunde horri esker. Ikasleak gehitzean, Matia kalera aldatu ziren.

17. Elbira Zipitria

- **Erref:** ORM-016/019
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:48:41. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Harreman gutxi izan zuen Elbira Zipitriarekin. Haren bizitza Bidegileak sailean dago jasota. Bilduma hori abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari izan zen garaian. Zipitria gerra aurretik hasia zen irakaskuntzan. Gerra sasoiari iparraldean egon zen, Sara inguruan. Bertan, besteak beste, Ramon Labaienen irakasle izan zen, haiek ere hara ihes eginda zeuden eta. Gerraostean Donostiara itzuli eta bere etxeko gela batean ematen zituen eskolak Elbirak. Mari Karmen Mitxelena irakasle izandakoak gertutik ezagutu zuen, haren ikaslea izan baitzen.

18. Ama, irakurzalea; aitaren ikuspegi aurrerakoia

- **Erref:** ORM-016/022
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:51:30. **Bukatu:** 00:53:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren aldeko familia oso euskaltzalea eta abertzalea zen. Ama Karmen Lasa Eguren. Oso irakurzalea zen; "Cuadernos para el diálogo"ko harpideduna. 50 urterekin frantsesa ikasten hasi zen eta 52 urterekin gidabaimena atera zuen. Ama aurrerakoia zen, baina aita izan zen bide-urratzaile izaten lagundu ziena eta ikuspegi irekiagoa zuena.

19. Aberri Egunak isilpean urte luzez

- **Erref:** ORM-016/023
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:53:57. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere ahizpetako bat 1956ko Aberri egunean jaio zen. Beste garai batzuk balira, Aberri jarriko ziotela izena esan zuen amak. Isilik pasatzen ziren garai batean egun horiek. Pixkanaka hasi ziren azaltzen: Bergarako Aberri eguna, Iruñekoa, San Migelgoa... Amak disko-jogailuan euskal musika jarri eta leihoak irekitzen zituen.

20. Iparraldera bidaiak; Lauaxeta saria Rikardo Arregiri

- **Erref:** ORM-016/024
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:58:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Donostian ikasten hasi zenean, euskarazko liburu eta diskoak eramaten zituen etxera. Frantziako kontuak entzuten ere gustura egoten zen ahizpa. Iparraldera joaten zirenean Labeguerieren diskoak erosi eta ezkutuan ekartzen zituzten. Branka aldizkaria ere bai. Rikardo Arregiri 1966an Lauaxeta saria eman zioten Biarritzen eta hainbat lagun joan ziren. Gogoan du "Le petit prince" liburua erosi zuela.

21. Euskara irakasle oso gaztetatik

- **Erref:** ORM-016/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:59:06. **Bukatu:** 01:02:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Patxi Altunak berarekin batera euskara klaseak ematera eraman zuen Deustuko unibertsitatearen Donostiako campusera, Altunaren `Euskera, hire laguna´ liburua kopiagailuan argitaratzen zen garaietan. Bere ikasle izandako batzuk: Enkarni Genua, Marisol Bastida (Mikel Laboaren emaztea), Juan Jose Ibarretxe... Santo Tomas lizeoko irakasle ere izan zen Jerardo Elortza eta Rikardo Arregirekin batera 1965-1966 ikasturtean. Aurretik ere Ormaiztegin euskara eskolak ematen zizkien umeei udan. Baina material gutxi zegoen: `Martin txilibitu´ eta `Xabierto´ eta gero Orixe, eliz-liburuak... Gerora liburugintzan materiala sortzen ibili ziren: gramatika arloan Patxi Goenaga, Lupe Artola; ipuin kontuan Andu Lertxundi; musika kontuetan Gotzon Aulestia...

22. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko talka

- **Erref:** ORM-016/029
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:03:40. **Bukatu:** 01:06:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Tradizioaren eta modernotasunaren arteko talka egon zen alor askotan: euskara batuaren baitan, literaturgintzan, antzerkian... Une gogorak pasa arren, aurrera egin zen. Gauza asko ideologizatu eta politizatu egin ziren, haren erabilera, adibidez. Literaturgintzan gaur egun ikuspegi zabala eta emakumezkoen ibilbide sendoa eta eman handikoa ditugula dio.

23. Hezkuntzako hizkuntza-ereduen sorrera

- **Erref:** ORM-016/030
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:06:34. **Bukatu:** 01:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Parte-hartze zuzena izan zuen hezkuntzako hizkuntza-ereduen kontuan, Xabier Mendiguren eta Mikel Lasarekin batera. Eusko Kontseilua Nagusia, Karlos Santamaria zen Hezkuntza Sailburu. Mari Karmen Altzueta. Gizarte-laguntzaile eskola sortu zuen eta gerora bere zuzendari izan zen hezkuntzan. Eskolara guraso erdaldunak zituzten haurrak joaten hasi zitzaizkienean planteatu zuten ereduena.

Transkripzioa

Neri gero gertatu zitzaidan: irakasle Santo Tomas Lizeon gero Magisteritza eskolan... Parte-hartze zuzen-zuzena izan nuen, ia Trantsizio garaira hurbiltzen hasi ginenean eta, gaur egun hezkuntza-ereduak esaten deguna: A, B, D. Hor Xabier Mendiguren itzultzaileak zerrikusia izan zuen eta Mikel Lasak eta baita beste batzuk ere, eta baita nik ere. Eta, hortan, Eusko Kontseilu Nagusia -Consejo General Vasco- martxan jarri zanean, don Karlos Santamaria Hezkuntza Sailburu, berarekin batera Mari Karmen Alzueta, nik asko estimatu nuen emakumea, Santo Tomas Lizeoko lehenengo zuzendaria eta gizarte-laguntzaile izan nuen garaian, Gizarte-laguntzaile Eskola sortu zuena eta bertako lehen zuzendaria. Ta gero ze izango eta nere zuzendari izatea gertatu zan, baino Hezkuntzan. Bueno. Mari Karmen Alzuetakin batera asko lan egin nuen eta gauzak ikusten genittuen, esate baterako, haurrak euskalduntzeak zer zekarren, familia erdaldunetako haurrak zetozkigun gure irakas-sarera eta abar. Bueno. Hor hasi zan eredu kontu hori eta. Oain ezin naiz zehatz-mehatz hortan sartu, baiña...

24. Hezkuntza elebidunaren inguruko tesia

- **Erref:** ORM-016/031
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 01:08:02. **Bukatu:** 01:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eskolara guraso erdaldunak zituzten haurrak joaten hasi zitzaizkienean hizkuntza-ereduak jartzea planteatu zuten. Elebitasunaren inguruan tesia egitea pentsatu zuen, baina zuzendaririk aurkitu ezinda ibili zen. Deustuko irakaslea zen Juan Plazaola jesuitaren bitartez Frantzian erbesteratuta zegoen Julian Ajuriagerrarengana iritsi zen. Hark Estrasburgoko unibertsitatean katedraduna zen alsaziar batengana bidali zuen eta emakume hark lagundu zion doktoretzarekin. Tesiko aztergaia: "Hezkuntza elebiduna Hego Euskal Herriko ikastoletan". Ordurako ezkondata zegoen eta bi ume zituen eta irakasle lanean zebilen eta erronka handia izan zen.

25. Ez dok Amairu; Elbira Zipitria gitarraren aurka

- **Erref:** ORM-016/033
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:13:35. **Bukatu:** 01:16:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ez dok Amairu. Beraiekin andereñoen erresidentzian bizi zen bat Elbira Zipitriarengana joaten zen praktikak egitera. Pakita Arregik gitarra irakaslea jarri ziela jakin zuenean, bota egin zuen, gitarra espainiarra zelako Elbirarentzat. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko beste talka bat izan zen. Mixel Labeguerie, Ez dok Amairuren aurrekaria. Benito Lertxundi. Joxean Artze, garaiaren aurretik zihoala zirudien.

26. Zeruko Argiako lehenengo emakumeak

- **Erref:** ORM-016/034
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:16:57. **Bukatu:** 01:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Zeruko Argia aldizkarian lehenengo emakume artikulugilea izan zen. Bere bidez hasi ziren gero Amaia Lasa eta Begoña Arregi. Geroxeago Odile Kruzeta eibartarra hasi zen, Joxe Mari Kruzetaren alaba. Miren Jone Azurza, bide-urratzailea.

27. Gerraosteko antzerkigintza

- **Erref:** ORM-016/036
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:18:30. **Bukatu:** 01:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ez zuen antzerkirik sekula egin, baina laguntzen ibiltzen zen. Bai Maria Dolores Agirrerren taldearen eta bai Iñaki Beobideren taldearen ikusle zintzoa zen. Santo Tomasetan eta San Sebastianetan Antzoki Zaharrean. Herrietara ere joaten ziren eta bertako gazteentzat garrantzitsua izaten zen. Don Manuel Lekuonak prestatutako antzerkiak, klasikoagoak. Xalbador Garmendiak Jarrai antzerki taldearentzat itzulpenak egin zituen, jada modernoagoak.

28. Elizaren eta zenbait elizgizonen jarrera gerraostean

- **Erref:** ORM-016/037
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:21:12. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Elizaren indarra eta eragina. Bazeuden ikuspegi irekia eta konprometitua zuten elizgizonak, adibidez, Serafin Esnaola. Vatikanoko II. Kontzilioaren eragina. Baziren elizaren gune itxiak ere. Ikastolen mugimendua hasi zenean, elizak eta herrietako erretoreek eskola txikiei emandako babesa.

29. Hezitzailea lanbidez, gizarte-laguntzailea bokazioz

- **Erref:** ORM-016/040
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:23:34. **Bukatu:** 01:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez da izan etxeko sukaldean gordetzekoa, nahiz eta sukaldaritza gogoko duen. Auzolana asko baloratzen du eta euskararentzat beharrezkoa dela uste du. Ez da jakiten bideak nora eramango zaituen. Berak herri txiki bateko maistra izatea zuen amets. 18 urterekin hasi zen lanean, hasieran Gizarte Segurantzarik gabe. Erretiroa hartu zuen arren, martxan jarraitzen du. Matia eta Nazaret fundazioetan dabil lanean.

30. Erretiroa hartu osteko Mari Karmen

- **Erref:** ORM-016/041
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 01:26:50. **Bukatu:** 01:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Erretiroa hartu duenetik etxekoei garai batean eskaini ez zien denbora eskaintzen saiatzen da. Maddi alabak umetan esan ziona. Aurrekoak zaintzeko aukera ere izan zuen. Familiatz gain, beste zaletasun batzuk ere baditu: musika, lorezaintza... Eta bere burua zaintzen ere ikasi du, ariketa fisikoa eginda. Garai baten gaizki ikusita zegoen emakumeek kirola egitea. Emakumeek gaur egun "Superwoman" papera ote duten. Behin ahizpak utzi zion liburua. Ondo antolatzea da kontua.

31. Une gogorrak politikan

- **Erref:** ORM-016/043
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:31:30. **Bukatu:** 01:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Burgosko prozesuaren garaia nola gogoratzen duen. Egun "belunak". Eusko Jaurlaritzan Kultura Sailburu eta bozeramaile izan zenekoa garai gogorra izan zen: heriotzak, bahiketak... Berari ere zainduta bizitzea tokatu zitzaion. Garai haren alderdirik onena pertsonak halako egoerei nola aurre egiten dieten ikustea, gizalegea...

32. Euskaltzaindiaren erakundetzea

- **Erref:** ORM-016/044
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:33:30. **Bukatu:** 01:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

<p>Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari izan zen sasoiari, Euskaltzaindiaren erakundetzea lortu zuten. Aita Villasantek orduko euskaltzainburuak lagundu zion asko. Mikel Zalbidek, Jose Luis Lizundiak eta geroago Haritxelarrek ere zeresana izan zuten. Haritxelarrekin sinatu zuten akordioa Nafarroako Gobernuak, hiru aldundiek eta Jaurlaritzak. 1918ko Oñatiko bilkura Euskaltzaindiaren sorreran garrantzitsua izan zenez, bertan egitea proposatu zuen.</p>

33. Elhuyarren sorrera

- **Erref:** ORM-016/045
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:35:45. **Bukatu:** 01:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Elhuyarren sorrera. Ingeniaritza eskolako hainbat ikasle eta beste zenbait lagun "Círculo San Ignacio" jesuiten lokalean biltzen ziren larunbat arratsaldeetan. Don Karlos Santamaria matematikariak akademia zuen bertan eta ahalbidetu zien sarrera. Euskara zientzia mundura eramatea zen helburua. Bertan biltzen zirenak: Luis Bandres, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola, Etxenike...

34. 1997an sinatu zen AEK eta HABEren arteko hitzarmena

- **Erref:** ORM-016/047
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:38:12. **Bukatu:** 01:40:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Eusko Jaurlaritzan egon zen sasoian AEK eta HABEren arteko gatazkari irtenbidea ematea tokatu zitzaion. Taldean zituen Josune Arzitondo, Xabier Aizpurua eta Jokin Azkue eta AEK-ko Erramun Osa aipatzen ditu. 1997an sinatu zuten hitzarmena. Gatazkaren nondik-norakoak: AEK eta HABE, elkartuko ez ziren bi bide paralelo zeuden.

35. ETAren bahiketak

- **Erref:** ORM-016/049
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:40:58. **Bukatu:** 01:42:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Garai gogorrek bizi izan ziren politikan. ETAren bahiketak. Jose Antonio Ortega Lararena izan zen luzeena; Burgosera joatea tokatu zitzaion. Bahiketak eta heriotzak oso gogorrek izan ziren eta denak ditu gogoan.

36. Miguel Angel Blancoren bahiketa eta heriotza

- **Erref:** ORM-016/050
- **Iraupena:** 0:08:44. **Hasi:** 01:42:23. **Bukatu:** 01:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Miguel Angel Blancoren bahiketaren inguruko kontuak. Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea zen orduan. Nola bizi izan zuen dena: bahiketaren albistea, manifestazioa, ospitaleko egonaldia, hileta... Hainbat politikarik familiarekiko izan zuen jarrera eta protagonismo nahia kritikatzeko ditu.

37. ETAk eraildako Buesa eta Lluch-ekin zuen harremana

- **Erref:** ORM-016/052
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 01:51:34. **Bukatu:** 01:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Mehatxatuta zegoen Tolosaldeko lagun batek laguntza eskatu zion. Ibarretxe lehendakariari horren berri ematear zegoela, danbateko batek eten zuen beraien elkarrizketa. Fernando Buesa eta haren zaintzailea hil zituzten

orduante. Buesarekin harremana zuen Jaurlaritzatik. Ernest Lluch-ekin ere beti harreman ona izan zuen. Berarekin izandako azken bi elkarrizketak. Lluch-en bitartez Maximo San Juan umoregilea ezagutu zueneko pasadizoa.

38. Yoyes eta Juan Mari Jauregi gertukoak zituen

- **Erref:** ORM-016/053
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:57:10. **Bukatu:** 02:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Beraien familian asko eragin zuten heriotzak izan ziren Yoyes-ena eta Juan Mari Jauregirena, biak oso gertukoak zituztelako. Umetatik ezagunak, bere anai-arrebekin ibili ziren Ordiziako Urdaneta akademian, batxilergoa egiten. Juan Marirekin azkenengoz izan zuen harremana. Boisen zegoela jakin zuen haren heriotzaren berri. Yoyes-ena Gasteizen zegoela jakin zuen. Haren senarra lankide izan zuen Santo Tomas Lizeoan.

39. Yoyesen inguruko zenbait kontu

- **Erref:** ORM-016/055
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 02:00:43. **Bukatu:** 02:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gogoan du neska koskorretan Yoyesek eta bere ahizpa Julitxok praka bakeroak erosi, barrenak moztu eta listu (flekoak atera) egin zituztela; amaren haserrea. Yoyesen aitona, Katarain, ormaiztegiarra zen. Aitak, Gonzalez, produktuak saltzen zituen Ormaiztegiko dendetara.

40. 70-80ko hamarkadan irakaskuntzan murgilduta

- **Erref:** ORM-016/058
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 02:03:31. **Bukatu:** 02:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Franco hil osteko garaia. Gogoan du diru-bilketak egin zirela, besteak beste, Egin eta Deia egunkarientzat eta Erein argitaletxearentzat. Auzolana, dirutan. Santo Tomas Lizeoko irakaslea zen orduan eta irakaskuntzan zebilen buru-belarri. Titulurik ez zuten andereñoek batxilergoa egin zezaten eskolak

ematen zituen iluntzeetan eta baita D eta B euskara tituluak ateratzeko ere. Horrez gain, Kataluniatik eredua hartuta, udako eskolak ematen zituzten Loiolan. Euskararekin lotutako batzuk Lazkaon ematen ziren, benediktarretan.

41. Emakume aitzindaria, ondorengoei atek zabaldu dizkiena

- **Erref:** ORM-016/059
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 02:06:06. **Bukatu:** 02:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

EAJko lehenengo sailburua izan zen Jaurlaritzan; aurretik baziren beste alderdi batzuetako hiru emakume. Hizkuntza Politikako lehenengo idazkari emakumezkoa izan zen eta baita lehenengo bozeramailea ere. Aitak beti esaten zien emakume izanagatik ez izateko nahi zuten hura egiteko beldurrik. Bide-urratzaile izan zen eta poza ematen dio ondorengoei bide hori jarraitu dutela ikusteak. Gauzak oso desberdinak dira gaur egun.

42. Emakume Abertzale Batza eta gerraren etena

- **Erref:** ORM-016/061
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 02:10:39. **Bukatu:** 02:13:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakume askoren lana ezkutuan geratu izan da. Emakume Abertzaleen Batzako emakumeak: Julene Azpeitia, Haydée Agirre, Azkuetarrak... Errepublikara garaian emakumea indarra hartzen hasita zegoen, baina gerrak eten izugarria ekarri zuen. Bere umetako eskola-koadernoetan ikus daiteke politikoki eta emakume bezala zer ideia sartu nahi izan zizkieten.

43. Pilar Primo de Rivera agurtu behar izan zuen Deban

- **Erref:** ORM-016/062
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 02:13:03. **Bukatu:** 02:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Pasaporte ateratzeko edo Magisteritza egiteko, hilabeteko ikastaroa egin behar izaten zuten emakumeek, Deban. Besteak beste "Obras completas de Jose Antonio Primo de Rivera" liburu potoloa ikasi behar izaten zuten. Hango zuzendari zen Petrirenak aginduta, Pilar Primo de Rivera agurtzera joan beharra izan zuen. 17 urte zituen. Orduko kontuak eta murgilduta zebilen bi munduen arteko kontrastea.

44. Magisteritzan musikako irakaslearekin gertatua; Maritxu Zabalbeaskoa

- **Erref:** ORM-016/063
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 02:15:47. **Bukatu:** 02:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Magisteritzan musikako bi irakasle zituzten: Maria Dolores Jauregi, titularra, erregimenekoa, eta Maritxu Zabalbeaskoa laguntzailea. Hirugarren urtean, abesbatza antolatu behar zuela eta Itziar Korta eta bera aukeratu zituen bakarlari gisa. Ikasturte amaieran bie ez gainditua jarri zien. Orduan, Maritxu Zabalbeaskoak bere etxera joan eta berak prestatuko zituela esan zien. Etxean aipatu zuenean konturatu ziren Plazido Domingoren amarekin (Pepita Enbilekin) Eusko Abesbatzan ibilitako Zabalbeaskoatarren familiakoa zela. Familia abertzalekoa eta euskalduna zen. Hari esker gainditu zuten ikasgaia.

45. Euskararen inguruko pozak eta kezak

- **Erref:** ORM-016/065
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 02:21:55. **Bukatu:** 02:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoera asko aldatu da garai batetik. Gaur egun ere badaude kezkatzeko kontuak. Euzkitzeren artikulua batean irakurri zuen kazetarien artean gertatzen ari dena: lanerako hizkuntza gaztelania eta albisteetarako euskara. Kontu hori beste arlo batzuetan ere gertatzen da eta kezka sortzen dio. Etorkinen familietako umeekin harremana du eta, ahal duen neurrian, laguntzen saiatzen da. Euskaraz komunikatzen da beraiekin. 1964an bera joan zenean baino euskara gehiago entzuten da Donostiako kaleetan.

46. Euskara zer den berarentzat

- **Erref:** ORM-016/068
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 02:25:32. **Bukatu:** 02:27:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara zer den berarentzat. Etxekoekin beti euskaraz. Bere tristurak, bere bizipozak, bere sentimenduak, bere egunerokotasuna... hori dena da euskara. Hizkuntza eta lurraldea. Euskara batzeko izan dadila, ez banatzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com